

## **BI MILA ETA HAMABIKO UZTAILAREN 2AN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

2012ko uztailaren 2an, 20:00etan, Etxarri Aranazko Udalak ohiko Osoko Bilkurara deitu, eta lehenengo deian osatu da, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea mahaiburu izan du, eta ondoko zinegotziak agertu dira:

### **Agertu dira**

**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.**  
**EDURNE IGOA LIZARRAGA and.**  
**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.**  
**ARACELI ERDOZIA ANSO and.**  
**MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.**  
**MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.**

**KITZ MENDIOLA BARANDALLARA jn.**  
**JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.**

### **Ez dira agertu**

**ENEKA MAIZ ULAYAR and**  
**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and**

### **Idazkaria**

**Silvia Gonzalo Etxarri**

## **1.- AURREKO AKTAK**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, 2012ko ekainaren 4 eta 21ean egindako Osoko Bilkuren aktak aztertu da (zuzenketak gehien bat) eta ondoren onartu da.

2012/06/21eko aktan jasotako idazkia udal langileek San Adrian eguneko gertakarien inguruan aurkeztutakoa dela argitu da.

## **2-PP ETA BILDUKO ZINEGOTZIAK KARGUEZ JABETZEA**

2012ko ekainaren 7an, Juan Antonio Extremera Apestegiaren zinegotzi kredentziala jaso genuen, Ugaitz Crespo Gutierrezen ordezkari izateko, eta 2012ko ekainaren 25ean, Kitz Mendiola Barandallarena, Francisco Manuel Campos Arañak utzitako kargua betetzeko.

Alkatea Idazkariari auzoketako bien kredentzialak eta akreditazioa egiaztatu ondoren, Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta hori betez, bi zinegotziek udaletxeko idazkaritzaren aurrean bilkura bukatu bezain laster aurkeztuko dutela bateraezintasunei eta diru-sarrerak dakarzkieten edo ekar diezazkieten jardueri buruzko aitorpena.

Jarraian, HAOLoren 108.8. artikuluan xedatutakoa betez, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan jasotako formularen arabera, karguaren betebeharrak eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko dituztela zin edo promes egin dute.

Juan Antonio Extremerak ondoko esaldia irakurri du: “Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones de vuestro cargo de concejal con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado.”

Kitz Mendiolari, ondoko esaldia irakurri eta gero, adierazi du Legeak horrela behartuta egiten duela. Hona esaldia: “Zin egiten duzu(e) edo hitz ematen, zuen kontzientzia eta ohoreagatik, zinegotzi karguaren eginbeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzo beteko dituzuela eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko, Estatuaren arau nagusia baita?”

Aurreko izapide guztiak eginda, Juan Antonio Extremera Apestegia eta Kitz Mendiola Barandalla zinegotzi-karguaz jabetu dira.

### **3.-2011KO KONTUEN BEHIN BETIKO ONESPENA**

Udal honetako Kontu Batzordeak 2011ko ekitaldiko kontuen aldeko txostena egin zuen. Espedientea jendaurrean egon den bitartean inork alegaziorik, oharrik edo kexarik aurkeztu ez duenez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta Extremera jaunaren abstentzioarekin, Etxarri Aranazko Udalbatzak, erabaki du:

Udalaren eta Musika Eskolaren 2011ko ekitaldiko kontuak behin betiko onestea eta iragarkia NAOn argitaratzea.

*Informadas favorablemente las Cuentas del Ejercicio 2011 por la Comisión de Cuentas de este Ayuntamiento. Dado que durante la exposición pública del expediente no se han presentados alegaciones, observaciones o reparos al expediente; de conformidad con lo dispuesto en el artículo 305 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra; con la abstención del Sr Extremera, el Pleno del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz, acuerda:*

*Aprobar definitivamente las cuentas del Ayuntamiento y la Escuela de Música correspondiente al ejercicio 2011 y proceder a su publicación en el BON.*

### **4.-FELIX AGUIRRE GAMBOAK SUSTATUTAKO SR-7 AR-/ UE23KO PLAN ALDAKETA: BEHIN BEHINEKO ONESPENA**

Edurne Igoak abstenitzen da eta aretotik ateratzen da, Plan Aldaketaren sustatzaileak senidea delako.

D. Felix Aguirre el 07/10/2011 presenta informe-contestación al primer informe del Gobierno de Navarra de fecha 19/08/2011 que es remitido al Gobierno de Navarra quien emite un segundo informe con fecha 05/12/2011.

2011/04/18an Etxarri Aranazko Udalak hasiera batez onartu zuen 3. industrialdeko 339 lursailari (SR-7, AR-7, UE-23) dagokion hirigintzako Plan aldaketa puntuala (antolamendu egiturazko determinazioak), Félix Agirrek sustatua.

Abenduaren 20ko Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeari jarraikiz, jendaurrean jarri zen 20 egun naturaleko epean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Jendaurreko epean, Feliciano Lizarraga Igoak alegazio bat aurkeztu zuen. Sustatzaileari alegazioaren berri eman genion eta 2011/07/5ean erantzun zuen. 2011ko irailean bi interesdunei Nafarroako Gobernuaren txostenak helarazi zitzaizkien.

2011/10/07an Felix Aguirrek 2011/08/19an Nafarroako Gobernuak idatzitako txostenari erantzuteko idazki bat aurkeztu zuen. Hori ikusirik, Nafarroako Gobernuak bigarren txosten bat prestatu zuen 2011ko abenduaren 5ean.

Udalak emandako jarraibideak aintzat hartuta, sustatzaileak behin betiko dokumentua aurkeztu zuen 2012ko maiatzean. Idazkaria eta udal arkitektoaren iritzia entzunda eta honen txostena ikusirik, eta Extremera jaunaren abstentzioarekin, Osoko Bilkurak erabaki du:

1.-Feliciano Lizarraga Igoak aurkeztu zuen alegazioa ez onartzea. Sustatzaileak 2011/07/05ean aurkeztu zuen argudioak ontzat eman dira.

2.- 3. industrialdeko 339 lursailari dagokion hirigintzako Planaren aldaketa puntuala (antolamendu egiturazko determinazioak, behin behineko onartzea: SR-/ , AR-/ , UE-23.

3.- Abenduaren 20ko Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintza Departamentura bidaltzea behin betikoz onar dezaten.

4.-Espedienteak sortu dituen gastuak sustatzaileari kobratzea: prentsa 1.251,39 € eta udal 632,40€

5.- Erabaki hau Felix Aguirreri eta Feliciano Lizarraga Igoari helaraztea, jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*Akordio hau izapide-egintza da eta ondorioz, ezin da errekurritu.*

#### **Modificación del Plan promovido por Felix Aguirre Gamboa**

Con fecha 18/04/2011 el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz aprobó inicialmente una Modificación Puntual del Plan Municipal de Urbanismo (determinaciones estructurantes) de parte de la parcela 339 pol. 3 nuevo Sector de suelo urbanizable sectorizado SR-7, AR-7, UE-23.

De conformidad con lo establecido en la Ley Foral 35/2002, de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el acuerdo estuvo en exposición pública durante 20 días tras su publicación en el Boletín Oficial de Navarra presentada una alegación por D<sup>a</sup> Feliciano Lizarraga Igoa el 03/06/2012 y de la que se dio traslado el promotor y quien el 5/07/2011 presentó la contestación a la misma. Se dio traslado a ambos interesados de los informes técnicos del Gobierno de Navarra en septiembre de 2011.

D. Felix Aguirre el 07/10/2011 presenta informe-contestación al primer informe del Gobierno de Navarra de fecha 19/08/2011 que es remitido al Gobierno de Navarra quien emite un segundo informe con fecha 05/12/2011.

Realizada la adaptación del documento conforme a directrices municipales y presentado el texto definitivo en mayo de 2012, oídos la secretaria y el arquitecto municipal y a la vista del informe del éste de fecha 2012/06/4, con la abstención del Sr Extremera, el Pleno ACUERDA:

1.-Desestimar la alegación presentada por D<sup>a</sup> Feliciano Lizarraga Igoa aceptando los argumentos indicados por el promotor con fecha 2011/07/05.

2.-Aprobar provisionalmente la Modificación Puntual del Plan Municipal de Urbanismo (determinaciones estructurantes) de parte de la parcela 339 pol. 3 nuevo Sector de suelo urbanizable sectorizado SR-7, AR-7, UE-23

3.-De conformidad con lo establecido en el artículo 81 de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo a fin de que proceda a la aprobación definitiva del mismo.

4.-Todos los gastos generados por el expediente se cobrarán al promotor: prentsa 1.251,39 € y tasa municipal 632,40€

5.-Trasladar el presente acuerdo al interesado Felix Aguirre y a D<sup>a</sup> Feliciano Lizarraga Igoa para su conocimiento y efectos oportunos.

*Se trata de un acto de trámite y por lo tanto no recurrible.*

### **5.-KANPINEKO SENTENTZIA ETA ELA SINDIKATUAREN HELEGITEA**

#### **KANPINEKO SENTENTZIA**

Kanpin Etxarri, S.L. enpresak administrazioarekiko 75/2009 prozedura martxan jarri zuen: Nafarroako Auzitegi Administratiboaren 968 ebazpena errekurritu zuen. Ebazpen

horretan Kanpinaren kontratuaren luzapena bertan behera geratzen zen (lehendabiziko akordioa) Epaileak ez du helegitea onartu. Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

### ELAren HELEGITEA

2012/05/30ean Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak ELA sindikatuak jarritako helegitearen berri eman zuen: 2010ean langile funtzionarioei aplikatutako jaitsieraren inguruko espediente bidaltzea eta interesdunei jakinaraztea (langile guztiei jakinarazi zitzaien). Alkateak 65/2012 ebazpenaren berri eman du eta Osoko Bilkurak berretsi du. Dena den, gaur goizean ELA sindikatuak helegitea kendu duela jakinarazi digute.

Ebazpenaren testua:

“Ikusirik, Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak bidalitako 170/2012 Prozedura arruntaren espediente, ELA Sindikatuak Etxarri Aranazko Udalaren ebazpenaren kontra ezarritakoa, hau da, langileei kendutako kantitateak bueltatzeko eskaerari buruzkoa, alkatetza honek erabaki du:

1.- Administrazio espediente kautotu eta folioz folio behar bezala bidaltzea.

2.- Espedientean interesdun den «LANGILEAK» bertaratzeko eskatzea eta dokumentazioaren kopia bat ematea, Nafarroako Auzitegi Administrazioaren aurrean agertzeko, hamar egun balioduneko epean.

3.- Espediente udal bulegoan jendaurrean egonen da, interesatuek eskatuta aztertu nahi badute.

*Teniendo en cuenta la documentación remitida por el Juzgado Contencioso-Administrativo nº 1 en relación al Procedimiento Abreviado nº 170/2012, interpuesto por el Sindicato ELA, contra la resolución dictada por el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz sobre reclamación previa de cantidades descontadas al personal funcionario, esta Alcaldía acuerda:*

*1.- Remitir expediente administrativo autenticado y debidamente foliado.*

*2.- Realizar emplazamiento previsto y entrega de una copia de la documentación «LANGILEAK» interesado en el expediente, para que en el plazo de diez días hábiles, puedan comparecer ante el Tribunal Administrativo de Navarra.*

*3.- El expediente quedará a exposición en las oficinas municipales para ser examinado por los interesados si así lo solicitasen.”*

### 6.-GALDE ESKEAK

Kitz Mendiola, Bildu taldearen izenean, PPko zinegotziari euskara ikasteko proposatu dio, bere ustez, ezinbestekoa baita Udalaren funtzionamendu egokirako eta oraingo funtzionamendua ez oztopatzeko.

Juan Antonio Extremerak dio itzultzaile bat izatea proposatu behar zuela. Izan ere, nahiz eta euskara ikasi, denbora asko beharko du euskaraz jardun ahal izateko.

Alkateak herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar dela dio, bera etxarriar guztion ordezkoa dela eta Extremeraren eskaera ulertzen duela, baina egoera ekonomikoa dela-eta zaila ikusten duela itzultzaile bat kontratatzea. Dena den, gaia garrantzitsua denez, aztertuko dutela adierazi du.

Eta aztergaien artean beste gairik ez dagoenez, 20:45ean presidenteak, Osoko Bilkura amaitutzat emanik, idazkariarekin batera akta sinatu du, eta idazkariak horren fede ematen du.